

44E/2016 EBAZPENA, azaroaren 25ekoa, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, helduei euskaraz irakasteko 2015-2016 ikasturteko urtariletik irailerako laguntzen deialdiko azken ordainketa ebazten duena.

Erreferentzia:	Espediente kodea: 0011-1273-2016-000000
UNIDADE KUDEATZAILEA: Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentua Hizkuntza Baliabideak Euskararen Egiaztapenen eta Prestakuntzaren Atala Tel.:848 426053 Faxe: Helbidea: Bartolomé de Carranza 5, 31008 Iruña Posta elektronikoa: euskarabidea@navarra.es	

ESPEDIENTEA:	
Espediente mota:	Helduei euskaraz irakasteko 2015-2016 ikasturteko diru-laguntzak
Aplikatzeko arauak:	

Hizkuntza Baliabideen Zerbitzuak maiatzaren 24ko 16E/2016 Foru Aginduan onetsitako deialdia dela eta aurkeztutako txostena ikusirik, zinean aurkeztutako justifikazio-dokumentuen baliagarritasuna eta horien gainean egindako balorazioa jasotzen baita.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 22.1.d) eta 99. artikuluek eta Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen abuztuaren 28ko 130/2015 Foru Dekretuaren 15. artikuluko d) puntuak ematen dizkidaten ahalmenak erabiliz,

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen abuztuaren 28ko 129/2015 Foru Dekretuan ezarritakoaren bidez esleitu dizkidaten ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

1. Ordaintzea taulan zerrendatutako onuradunei bertan zehazten diren kopuruak:

IFZ	Izena	Aurrekontuko kontu-saila	Zenbatekoa
F95222816	EUSKARAZ KOOP E	B30001-B3100-4819-322900: (E)Helduei euskaraz irakasteko laguntzak	122.171,44
G31941008	SAHATS FUNDAZIOA	B30001-B3100-4819-322900: (E)Helduei euskaraz irakasteko laguntzak	12.548,84
B31661515	LAN TA LAND SL	B30001-B3100-4819-322900: (E)Helduei euskaraz irakasteko laguntzak	1.150,17
G31246911	DONEZTEBEKO EUSKALTEGIA KULTURA ELKARTEA	B30001-B3100-4819-322900: (E)Helduei euskaraz irakasteko laguntzak	1.629,70
G31238199	BURLATA-ATARRABIA-UHARTE GAUESKOLA KULTURA ELKARTEA	B30001-B3100-4819-322900: (E)Helduei euskaraz irakasteko laguntzak	1.632,93
G31261290	ARTURO CAMPION AKADEMIA KULTURA ELKARTEA	B30001-B3100-4819-322900: (E)Helduei euskaraz irakasteko laguntzak	13.588,71
G31240005	BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIA KULTURA ELKARTEA	B30001-B3100-4819-322900: (E)Helduei euskaraz irakasteko laguntzak	9.210,86
P3190800G	ORKOIENGO UDALA	B30001-B3100-4819-322900: (E)Helduei euskaraz irakasteko laguntzak	407,45

2. Askatzea taulan zerrendatutako onuradunei bertan zehazten diren kopuruak:

IFZ	Izena	Aurrekontuko kontu-saila	Urtea	Zenbatekoa
F95222816	EUSKARAZ KOOP E	B30001-B3100-4819-322900: (E)Helduei euskaraz irakasteko laguntzak	2016	2.694,93
G31941008	SAHATS FUNDAZIOA	B30001-B3100-4819-322900: (E)Helduei euskaraz irakasteko laguntzak	2016	185,99
B31661515	LAN TA LAND SL	B30001-B3100-4819-322900: (E)Helduei euskaraz irakasteko laguntzak	2016	83,83
G31261290	ARTURO CAMPION AKADEMIA KULTURA ELKARTEA	B30001-B3100-4819-322900: (E)Helduei euskaraz irakasteko laguntzak	2016	935,49
G31240005	BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIA KULTURA ELKARTEA	B30001-B3100-4819-322900: (E)Helduei euskaraz irakasteko laguntzak	2016	3.798,15

3. Ebazpen hau eta bere Eranskina igortzea eskatzaile bakoitzari, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira, Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak Hezkuntzakoan duen Kontu-hartzailatza Delegatura, Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atalera, Kudeaketa Ekonomikoaren Bulegora, Euskarabideko Hizkuntza Baliabideen Zerbitzura, Euskararen Egiaztapenen eta Prestakuntzaren Atala, Programen Bulegora eta Diru-laguntzen Datu Base Nazionalera, bidezko ondorioak izan ditzan.

4. Bide administratiboa ixten ez duen Ebazpen honen kontra, gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako Kontseilariari zuzendua aurrean, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean.

Iruñean, 2016ko azaroaren 25ean.

EUSKARABIDEA - EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUKO ZUZENDARI
 KUDEATZAILEA
 MIKEL ARREGI PÉREZ